



OEEren 33. Osasun Biltzarra Botiketarik haratago

2024 urriak 25
Zornotza-Bizkaia



OSASUNGOA
EUSKALDUNTZEKO
ERAKUNDEA

Osasun Biltzarraren antolaketan parte hartu nahi duzu?

Urriaren 25ean Osasun Biltzarra egingo dugu Zornotzako (Bizkaia) Zelaieta Kultur Zentroan. Aurtengo jardunaldirako aukeratutako gaia "Botiketarik haratago" izango da. Horren harira, jakin ezazue dagoeneko irekita duzuela ahozko komunikazioak (hobetsita) eta posterrak aurkezteko epea, abuztuaren 31ra arte.

Bitartean, biltzarra prestatzeko lantaldea osatzen ari gara jada. Gauzak horrela, antolaketan parte hartu nahi duzuen guztiok ondoko helbide elektronikora mezua bidaltzea besterik ez duzue: oe@oeequea.eus

Erantsitako dokumentuetan behin-behineko egitaraua eta komunikazioak aurkezteko jarraibideak dituzue.

[Behin-behineko egitaraua](#)
[Komunikazioetarako jarraibideak](#)



EZAGUTZAREN ALDE

DEL LADO DEL CONOCIMIENTO
ON THE SIDE OF KNOWLEDGE

ZATOK GURE UDA IKASTAROETARA

Ezagutzaren alde ikuspegi berriak esploratzeko aukera paregabea dugu UPV/EHUko Uda Ikastaroetan.

Adimen artifiziala, jasagarritasuna eta partehartzea izango dira edizio berri honetako eronka nagusiak

Askotariko herritarrek egingo dugu topo bertan, ezagutza partekatu, hausnartu eta estorkizun hurbila zabaldu jarriko dugu.

Sartu uik.eus atarian, behatu gure Uda Ikastaro eskaintza eta eman ezazu ezagutzaren aldeko pausoa.

Osasunari buruzko lau jardura euskaraz, EHUKo Uda Ikastaroetan

Ekainaren erdialdean hasi eta irailaren amaiera ia 200 jardura programatu dituzte, EHUKo [Uda Ikastaroen](#) barruan. Bada, osasunari dagokionez, askotariko gaiak izango dira solasgai, horietatik batzuk euskaraz.

- **Uztailak 08-10:** "TopaGune ikastaroa: Sexu-heziketa: haurtzaroen eta nerabezaroen laguntzeko gakoak", Donostian.
- **Irailak 13:** "Osasuna eta hizkuntza VII: hizkuntza eskakizunetaz harago", Azpeitian.
- **Irailak 17:** "Adinberri: Berrikuntzarako Agenda Estrategiko Berria (BAE): Bizitza-luzeraren paradigma berria berritzen", Donostian.
- **Irailak 20-21:** "Hizkuntza-nahasmenduak haur elebidunen garapenean: ebaluazioa eta esku-hartzea", Lesakan.



*Pazientziari arreta hobea ematea da Euskal Osasun Liburutegi Birtualaren helburua.
Osasun Aniztasun Zengotitabengoa • Qualitative Learning • Birtualitateko erabilgarritasuna



Diaplasma antzen elkargunea

Osakidetzako Liburutegi Birtuala eta Lehen Mailako Arretari buruzko lehen jardunaldia hizpide Osatuberrin

Maiatzean, albiste bi argitaratu ditu [Osakidetzak](#) euskara hutsez plazaratzen duen [Osatuberrin.eus](#) atari digitalak. Besteak beste, Eukene Ansuategi Zengotitabengoa Osakidetzako Liburutegi Birtualeko zerbitzaburuari egin diote [elkarrizketa](#). Horretaz gain, apirilaren 12an Donostian egindako Lehen Mailako Arretari buruzko lehen jardunaldiaren [kronika](#) plazaratu dute. Azkenik, Expraik egindako Zaintzane Sasoiaren umorezko tirarekin goza daiteke jada.

